



Arartekoaren ebazpena, 2012ko martxoaren 8koa. Horren bidez, eskola-garraioko zerbitzu osagarria aitortzeko eskaera bati emandako trataerari buruzko jarduera bat ondorioztatu da.

Aurrekariak

1. (...)ko (1) LBHIn D ereduan eskolatutako familia bateko seme-alabek ikasleak onartzeko ohiko prozeduran (2011-2012 ikasturterako iragarritakoan) hartu zuten parte eta (...)ko (2) LBHira lekualdatzeko eskatu zuten, B ereduan eskolatuta jarraitu eta lehen-hezkuntzako 2 eta 6. mailak egin ahal izateko, hurrenez hurren.

Prozesu honen esparruan, bi adingabeak ikastetxe berriko ikasle gisa onartu ziren.

2. Hala ere, prozesua amaitu zenean, (...)ko Lurralde Ordezkaritzak egiaztatu zuenez (2) LBHiko lehen hezkuntzako 6. mailarako matrikulen eskari ugari (bai B ereduan, bai D ereduan) lehen (1) LBHiko lehen hezkuntzako 5. mailan (D ereduan) zeuden ikasleek ziren.

Hori dela eta, ikastetxeetako zuzendariak, (...)ko lurralde-ordezkariekin batera, jarraian adieraziko diren jarraibideak eman zituen, ikasleek beren etxeetatik hurbilen zeuden ikastetxeetan jarraitzeko erraztasunak emate aldera:

1.- Salbuespen gisa baimena ematen zaio (...)ko CEIP (1) HLHiri B eredua emateko aukera 2011-12 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako 6.ean, D ereduaz gain, eskariari erantzuteko xedez, ereduz aldatzeko ikastetxez aldatu beharrik gabe.

2.- CEIP (1) HLHIn Lehen Hezkuntzako 6.ean B eredua ireki izanagatik, Hezkuntza Lurralde Ordezkaritza honek ezohiko epe bat ireki du, uztailaren 6ra arte, asteazkena, familia batzuek, 2010-11 ikasturteon matrikulatuak dauden ikastetxearen hezkuntza-eskaintza berria kontuan edukita beste ikastetxe batean egindako matrikula baliogabetu nahi duten sendi guztiek, horrela egin ahal izan dezaten.

3.- Aurreko hori egin ezean eta ikastetxean dagoen hezkuntza-eskaintza berria kontuan edukirik, ulertuko da 2011-12 ikasturterako egindako matrikula berriak erantzuten diola ikastetxez nahita aldatu izanari eta ez ereduz aldatzeari; izan ere, horrek ondorio administratiboak daramatza berekin indarrean dagoen arautegiaren arabera.

3. Jarraibide hauetan hartutako neurriak gorabehera, azkenean, 2011-2012 ikasturtean, (1) LBHI ikastetxeko lehen hezkuntzako 6. maila ez da B ereduan





eman. Izan ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak adierazitakoaren arabera, horretarako gaitutako epean ez zen eskaerarik erregistratu.

Era berean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunek eskola-garraioko zerbitzu osagarria aitortzeko eskaerak ukatu dizkiete (1) LBHIn egon ondoren (2) LBHIn lehen hezkuntzako 6. mailako B eredura pasatu diren hainbat ikasleri, familia honen kasuan moduan. Argudiatu denez, ikasle hauek ez dute betetzen eskola-garraioari buruzko irizpide nagusiek xedatzen duten jarraibideen arabera bete beharrekoa den betekizunetako bat: dagokien eragin-eremuko ikastetxera joatea, hain zuzen ere (zonifikazioa).

Hori guztia kontuan hartuta, eta kexa jarri duen familiak azaldutakoari jarraiki, (2) LBHIn formalizatutako matrikula indargabetzeko aukera erabili ez denez eta beren bi seme-alabek ikastetxe berean jarraitzeari lehentasuna eman zaionez (matrikula indargabetzeko aukera lehen hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat soilik planteatu baitzen, baina ez beste ikasturteentzat), bere seme-alabetako batek ez dauka eskola-garraioko zerbitzu osagarria erabiltzeko eskubiderik, hezkuntzako administrazioaren ustez zonifikazioari buruzko betekizuna urratzen baitu.

Gogoetak

1. Ikasleak onartzeko azken prozesuei buruzko jarraipena eginda, kezkatuta gaude hezkuntzako administrazioak hezkuntza-eskaintzaren planifikazioa jorratzeko duen moduagatik, hizkuntza-eredu desberdinei dagokienez. Izan ere, ikastetxeek programatutako eredu-eskaintzaren izaera irekia ontzat ematen da (betiere eskari nahikoa baldin badago) azaltzeko hezkuntza-planifikazioko eragin-eremuak ezartzean ez dela kontuan hartu behar ikastetxe bakoitzak benetan eskaintzen dituen hizkuntza-ereduen maila edo zehaztasuna.

Erakunde honen ustez, ikasleak onartzeko prozeduren kudeaketa eraginkorragoa egiteko asmoak azal lezake jokamolde hau defendatzea. Hala ere, ezin dugu ahaztu hezkuntzako administrazioak bermatu egin behar duela familiek hezkuntza-eredua askatasunez hautatzeko duten aukera, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeko 5 e) artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Horren harira, hausnarketa sakonagoa egin beharko litzateke aztertzeko ea hezkuntza-sistemara sartzeko orduan beren intereseko hezkuntza-ereduan egoteko aukera berdinak dituzten benetan familiek.

2. Adierazitakoa azaltzeko, 2012-2013 ikasturtean onartuak izateko prozesurako onetsi diren jarraibideak hartuko ditugu adibide gisa (2011ko abenduaren 20ko Agindua - urtarrilaren 18ko 12. EHAA). Agindu horretako zortzigarren jarraibideko 2. puntuaren arabera:





Gehienez ere 3 ikastetxe aukeratu ahal izango dira eta, hiruretan, lehenengo-ordenaren arabera aukeratuko dira hizkuntza-ereduak, kontuan hartu gabe eredu horiek ikastetxean ematen diren ala ez.

Lehenengo aukera moduan ikastetxeak eskaintzen ez duen hizkuntza-eredu bat eskatzen denean, Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzak aztertu egingo du maila eta eredu horretan taldea eratzeko aukerarik dagoen ala ez ikastetxean bertan edo zonaldean; horretarako, nahikoa eskaera izan behar dira eta plangintzak horretarako bidea eman behar du. Edonola ere, kasu horretan, eskatzaileak onartzeko prozesuan parte hartuko du, baina ikastetxeak gainerako ereduak plazak esleitzeko duen prozesuan.

Ikus daitekeen bezala, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eskabideetan norberaren intereseko hezkuntza-eredua esleitzeko aukera ematen die familiei, ikastetxeak eredu hori eskaintzen duen ala ez alde batera utzita, horrela, eskari-kopuru nahikoa baldin badago, eskari hori asetzeko hezkuntza-eskaintza gaitu beharko delarik.

Gure ustez, ikastetxeetako zuzendariak (...)ko Hezkuntzako lurralde-ordezkariekin batera) bere garaian eman zuen jarraibideak, ebazpen honetako bigarren aurrekarian luze eta zabal azaldu dugunak, asmo bera zuen, hau da, erantzun hobea eman nahi zion (1) LBHIn egonik (2) LBHira lekualdatzeko eskatu zuten ikasleen familiek planteatutako eskariari.

Horrela azaldu liteke (1) LBHIn lehen hezkuntzako 6. maila B ereduan egiteko eskaintzaren iragarpena, nahiz eta aurretik ez zen eragozpenik planteatu (2) LBHiko eskaerak formalizatzeko, lehenago kudeatu baitziren ikasleak onartzeko ohiko prozeduran.

3. Horrenbestez, aurreratu dugun bezala, ulertzen dugu hezkuntzako administrazioak ikasleak onartzeko prozesuen kudeaketa hobea lortzeko eta hezkuntza-eskaintza eskola-inguru edo hezkuntza-zona bakoitzeko benetako beharrezanetara ahalik eta gehien egokitzeko asmoa edukitzea.

Horren harira, jakin badakigu iazko ikasturtean ikasleak onartzeko ohiko prozedura amaitzean salbuespen-egoera bat sortu zela eta hezkuntzako administrazioak egoera hori bideratzen saiatzeko interesa izan zuela. Hala ere, lehen adierazi dugun bezala, erakunde honen ustez honelako ekimenak jorratzean kontuan hartu behar dira jarraian azalduko ditugun kautela-neurri batzuk.

4. 2012-2013 ikasturterako ikasleak onartzeko prozesuan emandako jarraibideak ekarri nahi izan ditugu mahai gainera, ekimen hauek, hasieran programatutako eskaintza berrikusi eta familiek egindako eskarira egokitzen saiatzeko asmoa dutenak, ezin direlako dagokien onarpen-prozesutik bereizita ulertu.





Horren harira, nahitaezkoa zaigu gure ardura adieraztea, hezkuntzako administrazioak bigarren aurrekarian azaldutako jarraibidea hartu duelako. Izan ere, ez da kontuan hartu ikasleak onartzeko ohiko prozeduran emandako aitorten-egintzen irmotasuna, eta, gainera, formalizatutako matrikula indargabetu ezean ikastetxe-aldaketa boluntarioa egon dela ulertuko litzateke, eta ez eredia aldatu dela. Bestela esanda, era honetako ekimenak prozesu-formaltasun egokiei eta horien beharrezko bermeei erreparatu gabe burutu ahal izateak arduratu egiten gaitu.

Kezka honek, noski, ez luke zentzurik izango Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak lehen hezkuntzako 6. maila (1) LBHIn egiteko iragarri zuen eskaintzak familien onarpena izan balu. Baina, ez denez hala izan (berez Sailak berak adierazi du ez zela eskaerarik erregistratu ikastetxe horretara bueltatzeko), eta aipatu berri ditugun eragozpen formalez harago, erakunde honen iritziz sakon hausnartu behar da ea neurri edo ekimen hauen bidez nolabait ukitu edo konprometitu den familiek duten eskubidea hizkuntza-eredua askatasunez hautatzeko.

5. Ebazpen honen lehenengo gogoetan aipatu dugunez, une honetan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak uste du ikastetxeek programatutako eredu-eskaintzaren izaera irekiari esker (betiere eskari nahikoa baldin badago), hezkuntza-planifikazioko eragin-eremuen muga ezartzean ez dela kontuan hartu behar ikastetxe bakoitzak benetan eskaintzen dituen hizkuntza-ereduen maila edo zehaztasuna.

Hori dela eta, eskola-garraioari buruzko indarreko jarraibideek (*Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Dirubideen zuzendariaren TE-1/2010 zirkularra, haur-hezkuntza (2. zikloa), lehen-hezkuntza eta DBHko mailetan eskola-garraioari buruzko irizpide nagusiak ezartzeari buruzkoa*) zonifikazioari (eragin-eremuaren arabera dagokien ikastetxera lekualdatzea) buruzko betekizuna bete behar dela ezartzen dute, baita aldi baterako baimendutako plazak eskuratzeko ere, nahiz eta lehen zerbitzu osagarri honetarako aukera berariaz aitortzen zitzaien hizkuntza-eredu jakin bat aukeratzeagatik beren helbideko eragin-eremutik kanpoko ikastetxe batera joan behar zuten ikasleei.

Indarreko jarraibideen isiltasuna albo batera utzita, argi dago eskola-garraioko zerbitzua lehen bezala aitortu behar dela, hizkuntza-eredua askatasunez aukeratzeko eskubidea bete nahi bada.

Hori horrela, egia da kexa hau azaldu duen familiari, baita (2) LBHIn geratzea erabaki duten horiei ere, bete egin zaiela seme-alabak beren intereseko hizkuntza-ereduan (B eremuan, hain zuzen ere) eskolatzeko eskubidea.

Hala ere, hori egia den arren, ezin dugu ahaztu eskubide hori larriki ukitu edo mugatu dela, (1) LBHIn eskaintza berria gaitzeko emandako jarraibidea dela eta. Izan ere, formalizatutako matrikula indargabetu ezean ikastetxe-aldaketa





boluntarioa egon dela ulertuko litzateke, eta ez eredia aldatu dela, eta *“administrazioko ondorioa”* garraio-zerbitzua ez aitortzea litzateke, nahiz eta, hartutako neurri guztiak gorabehera, azkenean programatu den hezkuntza-planifikazioaren errealitatearen ondorioz familia honek *ez daukan B ereduko beste hezkuntza-eskaintzarik bere helbideari dagokion eragin-eremuan edo hezkuntza-inguruan.*

Hori guztia dela eta, erakunde honek gai honetan izan duen esku-hartzeari amaiera jarriko diola erabaki du, eta, horretarako, honako ondorioan laburbiltzen den ebazpena eman du.

Ondorioa

Kontuan hartu behar da, batetik, azkenean programatutako hezkuntza-planifikazioaren errealitatearen ondorioz familiak ez daukala B ereduko beste hezkuntza-eskaintzarik bere helbideari dagokion eragin-eremuaren edo hezkuntza-inguruaren barruan; bestetik, kezka formalak adierazi ditugu 2011-2012 ikasturterako ikasleak onartzeko ohiko prozeduraren esparruan emandako aitopen-egintzak birpasatu eta planteatzeko aukerari buruz. Horrenbestez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aztertu egin beharko luke kexa sustatu duen familiak eskola-garraioko zerbitzu osagarria aitortzeko egin duen eskaerari eman zaion tratamendua.

